



252. zenbakia

• Ekaina 2025 •

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



Endika Legarra Nuin Jauntsarats, 2025-05-18

Memorian Delgado
eta Iturbide
hezkuntza ta osasuna
haien ogibide.
Faxismoaren bortxa
latzen bi adibide
sinetsi nahi zutenak
bazela posible.
Faxismoaren bortxa
latzen bi adibide
borroka egin zutenak
izateko libre.

Osasun publikoa
denontzat berdina
hezkuntza laikoa
herrik egina.
Aspaldi behar zela
da ukazina
omentzea beraien
ta familien mina.
Aspaldi behar zela
da ukazina
publiko egitea
haien ahalegina.

Nahiz ta lehengo garaia
ez zen segurua
begira orain ere
gure ingurua.
Izan bihotza bero
eta hotz burua
gizarte askea bada
gure helburua.
Izan bihotza bero
gaur Basaburua
oroituz berreraiki
dezagun mundua.



**Jauntsaratsen, Basaburuko medikua eta Igoako
maisua izandakoei eta 36ko kolpe faxistaren ondorioz
errepresaliatuei egindako omenaldian botatako bertsoak**

Hautatu



komunikazioa

3 hedabide

Komunitate
Helburu
Proiektu
Hizkuntza
Eskualde

bera



pulunpe



ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Denok Bat Elkartea, Lourdes Iraizotz, Alazne Fdez de Muniain eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez.

TIRADA

1.700 ale.

INPRIMATEGIA

Gertu.

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa.

AZALEKO ARGAZKIA

Auza, maiatzaren 10ean.
Loreto Gelbentzu Ibarrola.

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira ekainaren 5an bidalia.

AURKIBIDEA

04

Gaurko gaia. *Eolikoak*

08

Kronika. *Denok Bat jubilatuen elkartea*

10

Albisteak.

12

Elkarriketa. *Igoako Ostatua*

14

Gure historia. *II Mundu Gerraren eragina gurean*

16

Herrian bertan. *Kosmetika naturala*



20

Gure hizkera. *Gibel*

22

Zer ikusi. *amezti.eus-en*

24

Aspaldiko kontuak. *Esan omen zion behin...*

27

Ardo freskoa. *Zubiak*

28

Berezia. *Panegirikoa*

30

Ekimenak. *Basaburuko ahaztuak*

32

Zer irakurri. *Ekaina*

34

Jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak. *Apirila*



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Zazpi aerosorgailuko proiektu berria Olaibar, Esteribar, Odieta eta Anue artean

Enigma Green Power enpresak proiektu eoliko berri bat egin nahi du eskualdean eta inguruko bailaretan. Zazpi aerosorgailuko egitasmoa da, Anueko Etsaindik eta Burutaindik eta Odietako Ostiztik oso hurbil joanen litzatekeena. Herritar asko proiektuaren aurka azaldu da, eta Haize Berriak plataforma berriz martxan jarri dute. Ekainaren 11ra arte egonen da ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari alegazioak aurkezteko aukera, eta horretarako deia egin diete herritarrei plataformatik.

Duela hiruzpalau urte antzeko kokalekuan planteatu zuen Sacyr enpresak beste makroproiektu eoliko bat, baina Nafarroako Gobernuaren ingurumen sailak ezezkoa eman zion orduan. Orain, beste enpresa bat da egitasmo eoliko berri batekin etorri dena: Enigma Green Power, Arena Green Power enpresarekin lotura estua duena. "Duela urtebete inguru etorri ziren enpresako ordezkariak Enderitz ingurura, herritarrekin biltzeko deialdi irekiak egin zituzten. Hasiara batean, jarrera oso onarekin zetozeela zirudien, haien hitzetan, herritarrekin batera egin nahi zuten proiektua, haien iritzia errespetatuz...", azaldu du losu Alfaro etsaindarrak. Urte honetako ibilbidean ikusi denez, ordea, ez dute esandakoa errespetatu, herritar asko proiektuaren aurka azaldu arren enpresak ez duelako atzera egiteko inolako keinurik egin.

Beraizko Jauntzaren inguruko mendietan kokatu nahi dituzte zazpi aerosorgailuak, 180 metro inguruko altuerako errota lirategi ke –palak barne–, 22 metro karratuko zapatak izanen litzukete, eta zelaitutako eta landarediz biluzia den espazio askoz zabalago bat. "Palek 75 metroko luzera dute, eta horiek pieza bakar batean igo behar dituzte. Ikusi ditugu bi


“**Errota bakoitza
parke eoliko
propio gisa
tramitatu dute**”

edo hiru errailetako errepideetan horiek garraiatzen, bihurguneak hartzeko sekulako eremua behar dute, bada, pentsa hemengo bide

eta mendietatik nola igoko lituzketen. Guzti hori gora igotzeko lur mugimendu potoloak, ezpondak eta bestelakoak egin beharko litzukete”, gehitu du etsaindarrak. Olaibarren izanen luke inpakturik handiena, bertan baitago egitasmoa kokatuta batik bat, baina Esteribarko, Anueko eta Odietako zenbait zati ere hartuko lituzke.

Tramitazioan azpajoko susmagarriak

Kuriosoa suerta daiteke, lehen begi kolpean, proiektu eolikia tramitatzera, errota bakoitza





parke eoliko bakar gisa aurkeztu izana. "Errota bakoitzaren atzean izen bereko enpresa bat dago, baina zenbaki desberdinekin", gehitu du Alfarok. Egitasmoen atzean dagoen enpresa-eredua ere kezka iturri dela gehitzen du herritarrek, izan ere, 3.000 euroko kapital soziala besterik ez duten enpresak dira, pertsona bakarreko sozietate mugatuko forma dutenak.

"Horrek zer esan nahi du? Hasteko, enpresa bakar bat dagoela proiektu osoaren atzean, eta enpresa hori kokapen egokiak detektatu, baimenak lortu eta kudeatzera mugatzen dela. Behin hori lortuta, merkatura ateratzen dute proiektua beste enpresei baimen horiek saltzeko", dio. Nafarroan proiektu berriztagarri askotan errepikatzen den formula da, herritarrek eta kaltetutako bailarak ziurgabetasun egoeran uzten dituenak. "Enpresak diru kopuru txiki hori galtzera besterik ez dira arriskatzeko, eta edozein arazoren aurrean, haien interesa ondare pertsonala jokoan ez jartzea da. Baina horrek herritarrok biluzik uzten gaitu, arazoen aurrean ez dagoelako inor

proiektu horiekiko ardura hartzen eta aurpegia ematen".

Diruaren kartarekin jokatzuz

Herri txikiz osatutako bailarak dira proiektu eolikoa planteatu duten tokiak, sarritan, ekonomikoki diru-sarrera gutxi izaten dituztenak. Horrekin asko jokatzeko dute hurbiltzen diren enpresek. "Dena dela, enpresa hau Nafarroan garatzen ari den proiektuek badute ezagutgarri bat, eta hori da lur pribatuak bilatzen dituztela. Proiektu zehatz honetan ere, lurren %90 inguru pribatuak dira", azaldu du etsaindarrek. Kasu honetan, gainera, lurjabe handien eskuetan dauden lursailak dira gehienak, Beraizko Jauntzaren ingurukoak. Lur pribatuak izanda ere, enpresak derrigortuak daude proiektuaren eraikuntzaren %5 bertako udalei ordaintzera, baimeak haiei eskatu beharra dizkielako. Eraikuntza fasean soilik da hori, dena den. "Horrek diru sarrera bat dakar udalera, hori egia da, baina gero urtero ekoizpenagatik ordaindu beharreko portzentajea esku pribatueta soilik joanen litzateke, lurjabeetara".

“Eraikuntza fasean soilik jasoko lukete dirua udalek”

Proiektuaren kontra azaldu diren herritarrek uste dute betirako izanen den kaltearen truk, bueltan herriek behin jasoko duten diru zatitxoak ez duela konpentsatzen. "Argi dago hemen badugula aberatsa den baliabide bat, haizea, izan ere, antzeko tokian planteatzen duten hirugarren proiektua da honakoa. Orain arte planteatu den moduan kaltegarria da baliabide horren erabilera, bai ingurumen aldetik, baina baita eredu ekonomiko eta sozialaren aldetik ere. Kontua da baliabide hori mantentzen badugu, gure eskutan egon litekeela beste moduren batean kudeatzeko aukera. Hausnarketa interesgarria litzateke pentsatzea zer egin dezakegun eta zer egin nahi dugun baliabide horrekin", dio Alfarok.

Momentuz, egitasmoak eragingo lieken udalak –Olaibar, Anue, Esteribar eta Odieta– eta kontzejuak informazioa biltzen eta aztertzen ari dira, baita proiektuaren aurkako argudioak jasotzen ere. Anueko udalak, esaterako, kontzejuekin batera proiektuaren aurkako alegazioa prestatzen ari direla jakinarazi du. Parke eolikitik hurbilen geldituko liratekeen herriak dira Burutain, Etsain, Sarasibar, Enderritz, Zandio eta Osakain. "Bi kilometro edo gutxiagoko distantziara dauden herriak dira horiek", azaldu du Alfarok.



Etsaindik ikuspegia, atzeko mendilerroan joanen lirateke errota



Proiektuaren ezaugarriak:



Ingurumenean kalteak

Gure eskualdea migrazio korridore betean dagoela gogorarazi du Etsaingo biologoak, hegaztien eta saguzarren autopista modukoa dela errotak eraiki nahi dituzten ingurua. "Haize errotak horientzat oztopo izaten dira, eta ez da hemen zazpi hauek jarri nahi dituztela soilik, nork daki hurrengo bailaran datozen urteetan zer jarriko duten edo ez...", dio. Horrez gain, errotak mendietara igotzeko eta eraikitzeko egin beharreko lur mugimenduek ere ingurumenean kalte nabarmenak eragingo lituzketela diote proiektuaren aurka azaldu direnek.

Bestalde, ingurumenean eraginen lituzkeen kalteez gain, halako egitasmoak planteatzen dituzten enpresen eredia bera zalantzan jartzen dute askok. Izan ere, negozio eta errentagarritasun ekonomiko ikuspegi soiletik abiatzen dituzte proiektuak askotan, eta ez herritarren beharrei erantzuteko asmoz. Eta guzti hori, alternatibaren eta energia berdeen izenean. "Gaur

egun, Nafarroak behar adina elektrizitate ekoizten du eguzkiarekin eta haizearekin, eta esportatzen ari gara. Non jarriko dugu muga? Eta zein da bultzatzen segituko dugun eredia? Zeren, hau, argi dago merkatuaren eredia dela", dio etsaindarrak.

Haize berriak, berriz martxan


2022an Nafarroako Gobernuak atzera bota zuen proiektuaren aurka egiteko sortu zuten inguruko bailaretako herritarrek Haize Berriak plataforma, eta aurreko egitasmo hura bertan behera gelditu zenetik geldirik zegoen. Orain,

herritarrek berriz ere antolatzeari ekin diote, eta plataforma berrabiarazi. "Horrelako proiektuen aurrean informazioa biltzea eta zabaltzea da gure helburu nagusia", dio Alfarok. Etsainen duela aste batzuk bilera irekia antolatu zuten, eta Olaibarren ere egin dituzte bilerak eta agerraldiak. "Bailaretan badago jendea proiektuaren aurka, eta badaude alde daudenak ere. Egia da horrelako proiektuek giroa zertxobait tentsionatzen dutela, baina orain arte gai izan gara, gure gorabeherekin, hitz egiteko eta eztabaidatzeko, eta oraingoan ere izanen gara", diote.

Zein da momentu honetan proiektuaren egoera? Bada, errealitatea da nahiko aurreratua dagoela. Izan ere, behin enpresak proiektuaren xehetasunak eta ingurumen-inpaktuaren txostena aurkeztuta, eta aurkako alegazioak aurkezteko epea bukatuta, administratiboki proiektua oztopatzeko bideak nahiko agortuak gelditzen dira. "Aipatutako pauso horiek guztiak eginak dituzte honezkero, Nafarroako Gobernuaren ingurumen sailak informazio publikora atera du proiektua orain, eta alegazioen fase horretan gaude. Ekainaren 11n itxiko da fase hori, eta ondoren, alegazio guztiak eskutan, dena berrikusi beharko du ingurumen sailak, eta erabaki baimena eman edo ez".



Haize Berriak plataformaren agerraldia, Olaibarren



Inteligencia Rural
TERRITORIOS CON VALOR
Landa Adimena
BALIODUN LURRALDEAK



EVENTOS TECNO-LÚDICOS

Evento tecno-lúdico con Drones, Impresión 3D, gafas de RV, y una charla práctica sobre IA

TUDELA

Centro Cívico Lestonnac
16 mayo 2025
De 17:00 a 20:00 h.
A las 18:00 h. charla de IA

FALCES

Casa de Cultura
27 mayo 2025
De 17:00 a 20:00 h.
A las 18:00 h. charla de IA

LESAKA

Casa de Cultura Harriondoa
6 junio 2025
De 17:00 a 20:00 h.
A las 18:00 h. charla de IA

TAFALLA

Kulturgune
11 junio 2025
De 17:00 a 20:00 h.
A las 18:00 h. charla de IA

SANGÜESA

Centro Convive
13 junio 2025
De 17:00 a 20:00 h.
A las 18:00 h. charla de IA

EKITALDI TEKNO-LUDI KOAK

Ekitaldi tekno-ludikoa: droneak, 3D inprimaketa, EB betaurrekoak eta IAri buruzko hitzaldi praktikoa

TUTERA

Lestonnac Gizarte Etxea
2025eko maiatzak 16
17:00etatik 20:00etara
18:00etan AA hitzaldia

FALTZES

Kultur Etxea
2025eko maiatzak 27
17:00etatik 20:00etara
18:00etan AA hitzaldia

LESAKA

Harriondoa Kulturetxea
2025eko ekainak 6
17:00etatik 20:00etara
18:00etan AA hitzaldia

TAFALLA

Kulturgune
2025eko ekainak 11
17:00etatik 20:00etara
18:00etan AA hitzaldia

ZANGOZA

Bizikidetza Zentroa
2025eko ekainak 13
17:00etatik 20:00etara
18:00etan AA hitzaldia



UNIÓN EUROPEA
Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



cedema garalur



ZONA MEDIA
GRUPO DE ACCIÓN LOCAL

consorcio
EDER

Italia, Sos del Rey Catolico eta txangoa

Aurtengo maiatza hilabete oparoa izan dugu eta Denok Bat elkartetik egindakoez ariko gara kronika honetan. Italiara bidaia, Sos del Rey Catolico herrira egindako egun pasa eta Muizko ermitara egindako txangoaren berri ekarriko dizuegu.



Bidaariak, zapi gorriekin, taldearen ezaugarria

Italiarako bidaia egin zuten 15 bazkidek. Maiatzaren 18an atera ziren 25ean itzultzeko. Madrilera autobusez joan ondoren, hegazkinenez Milanera joan ziren, hiria eta inguruak ikusteko. Toki asko ikusi dituzte, tartean Comoko lakuak, Verona, Trento, Bolzano, Veneto eta Venecia. Oso pozik eta gustura ibili direla kontatu dute han izandakoek.

Eguneko txangoan, oraingoan, Sos del Rey Catolico ikustera joan ginen. Esanen dugu asmoa Monasterio de Piedra ikustera joatea zela, han gau bat eginez, baina ez genuen lortu bidaia nahikorik biltzea eta aldaketatxo egin behar izan genuen.

Oso ongi zaindutako herria dugu

Sos eta bisitari asko ikusten dira bere karriketatik barna, gordetzen dituen hainbeste historiaz jakin nahian. Gida bat izan genuen, Sandra, berak erakutsi zigun herria eta kontatu zizkigun hango hainbat gertaera. Horietako bat,

izena nondik datorkion: Fernando "el Catolico" jaio zen bertan, eta bere ama Juana Enriquez Zangotzatik etorri omen zen lasterka eta presaka, bere semea Nafarroan jaiotzerik nahi ez zuelako. Orain duen izen luzea joan den mende hasieran eman zioten, ez da hain zaharra. Lur eremu zabala du Sosek, 213Km², pentsa gure eskualde osoak, Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamak 344 Km² besterik ez dituela. Ez genituen denak ikusi, Zangotzara bidean zirenak bakarrik.

Herrian bertan eman ziguten bazkaria, Vinacua hotelean. Aurretik hitzartutako bazkari bikaina, oso ongi prestatua. Ondoren, herrian barna ibiltzeko aukera izan genuen, musean eta solasean aritzeko, lagun artean kontu kontari. Ilunabarrean autobusa hartu eta etxerantz itzuli ginen, bere biztan-



Gidarekin herriko txokoak ezagutzen



Karrika estuak, alde zaharrean



Bazkari goxoa dastatzen

leek maite duten herri bat ikusi genuen sentsazioarekin.

Maiatzak izan du bere txangoa, oraingoan Basaburua alde-ra joan gara paseatzera. Itsaso zen ibilbidearen herria, bere lurretatik barna egin zen ibilaldia, Muizko ermitatik pasatuz. Bi ordu luze iraun zuen paseoari, ostatuan egin zen bazkariarekin eman ziztaion bukaera.

Hurrengoan Donibane Garazira egingen dugun txangoaren berri izanen duzue, besteak beste.

Itzalpean, atsedena





Bestetan euskarari tratamendu duina emateko eskatu die udalei Ezpela Euskara Taldeak

Eskualdeko udal guztiei gutuna bidali die Ezpela Euskara Taldeak, herriko bestetan euskarari ematen zaion tratamenduarekin kezkatuta, horretan arreta jartzeko eskatuz. Batetik, bestetako karteletan okerrak maiz ikusten direla eta, gonbidapena egin die

udalei euskara teknikariarekin harremanetan jartzeko, halako zerbitzuak egiteko prest dagoelako. ezubioa@iparmank.eus helbidera idatziz edo 948 305 134 telefono zenbakira deituz jar daiteke harekin harremanetan.



Bestetik, herrietan egiten den musika eskaintzari dagokionez ere, euskarak behera egin duela nabarmendu dute gutunean, bai kiosko eta errondetan, eta baita DJ eskaintzan ere. Edukiaz haratago, euskararen presentzia bermatzeaz arduratzeko eskatu die taldeak, eta gauza bera aurkezleek parte hartzen duten ekimenetarako: euskaldunak izan daitezela eta ongi mintza daitezela. Haurrei eta gaztetxoei zuzendutako ekimenen kasuan ere, ezinbestekotzat jo dute horiek ere euskaraz izatea.

Edozein zalantza, iradokizun nahiz galdera izanez gero, ezpelataldea@gmail.com helbidera idatziz haiekin harremanetan jartzera animatu dituzte udalak eta herritarrak.


Nafarroako Bertsolari Txapelketako aurrekanporaketa jokatu zen Jauntsaratsen

Urriaren 4an hasiko da 2025eko Nafarroako Bertsolari Txapelketa, baina honezkero jokatu dira txapelketan parte hartzeko aurrekanporaketak. Maiatzaren 23an eta 30ean jokatu ziren bi aurrekanporaketak, Iruñean lehenengoa, eta gure eskualdean, Jauntsaratsen, bigarrena. Sei bertsolari aritu ziren Jauntsarasko Apeztegi berriko ganbaran kantuan: Amaia Elizagoien Varela, Bittori Elizalde Soto, Endika Legarra Nuin, Fernando Ziganda Urdanpilleta, Kattin Madariaga Apaolaza eta Mintxo Astiz Goñi. Ander Arriola aritu zen gai-jartzaile lanetan.

Urriaren 4ean hasiko dira txapelketako lehendabiziko faseekin, eta aurtengo finala, berriz, azaroaren 29an izanen da Iruñean.

Horrela gelditu da sailkatze faseko sailkapena:

1. Endika Legarra Nuin
2. Xabi Maia Etxeberria
3. Kattin Madariaga Apaolaza
4. Amaia Elizagoien Varela
5. Aitor Irastortza Arrizubieta
6. Jabi Lezaun Landa
7. Fernando Ziganda Urdanpilleta
8. Bittori Elizalde Soto
9. Mintxo Astiz Goñi
10. Etxahun Azkarraga Fernandez
11. J. Bernaldo de Quirós 'Berni'
12. Peio Ardaiz Gale





Sailkapena, osorik

250 parte-hartzaile, Basaburuan izan zen Rogaine Txapelketan

Taldeka egiten den orientazio kirola da Rogaining, eta Nafarroako hamargarren txapelketa antolatu dute Basaburuan, maiatzaren 24an. Osotara, ia 100 taldek eman zuten izena hiru probetan; erdiek, hamabi orduko proban; beste erdiaren gehiengoak, sei ordukoan; eta, gutxiengoak, hiru orduko proban. Bestetik, parte-hartzaileen gehiengoak Euskal Autonomi Erkidegotik zetorren arren, Nafarroakoek gertutik jarraitzen zieten. Beste asko Kataluniatik ere etorri ziren, baina baziren baita Madrilgoak, Galiziakoak eta Valentziakoak ere. Kanpotik etorritakoak, batzuk Frantziatik, eta Letoniatik etorritako bikote bat ere aritu zen.

Rogaine Elkartek, Nafarroako Kirol Elkartek eta Gipuzkoako Orientazio Taldeak antolatu zuten Basaburuko eta Imozko Kirol Batzordeak, Basaburuko Udalak eta Nafarroako Gobernuak lagundu zuten txapelketa. 2018an ere Basaburuan antolatu zen proba, Roberto Pascal Orcajo antolatzaileetako bat da: "Basaburuan erliebea oso egokia da eta bide asko ere baditu. Baina guretzako garrantzitsuenak Basaburuko herritarrak dira, pertsona onak direlako eta gauzak errazteko dena ematen dutelako. Bertakoak janaria arduratzen dira, parte-hartzaileei ematen zaien janariaz. Horrek guri lan asko kentzen digu eta gastuak murrizten dizkigu".

Rogaining Australian sortu zen, 70. hamarkadan. European gailentzen ari zen orientazio kirolaren antzekoa da, baina desberdintasunekin, Pascal: "Orientazioan mapak xehetasun gehiago ditu eta, beraz, prezisioa lantzen dute. Rogainingak nabigatzea eskatzen du gehiago, distantzia handiagoak ibiltzen dira, mendi kirolarekin ere nahasten da". Parte-hartzaileek ezin dute iparrorratza ez den beste dispositiborik erabili, eta mapaz lagunduta ezartzen zaien bidea aurkitu eta egin behar dute ahalik eta denbora gutxien. Munduko txapelketa Burgosen izanen da uztailan eta aurretik Berastegin izanen da beste lehiaketa bat, ekainaren 21ean.





“Herriarren beharretara egokitzen gara, baina gure egiteko moduari eutsiz”

Martxoaren 30ean zabaldu zituzten Sara Crisóstomok eta Bohumil Zacekek Igoako Ostatuko ateak, zenbait hilabetez itxita egon eta gero. Donostiatik etorri dira ostalari berriak, eta esperientzia luzea dute ostalaritzaren munduan. Proiektu berrian abiatu dutenetik hilabete eskasera egin diegu elkarriketa, eta diotenez, oso pozik daude eskualdean izan duten harrerarekin.

Beste ezer baino lehen, aurkeztuko dizkiguzue zuen buruak?

Sara: Ni Sara naiz, Bilbotarra, baina azken urteetan Donostian bizi izan gara. Basque Culinary Center-en formazioa egin eta gero, azken hamar urteotan ostalaritzan aritu naiz esparru eta toki desberdinetan: Kanarietan, Londresen... ardoari lotutako kontuetan aritu

naiz batik bat lanean, baina baita 'salako' funtzioak betetzen ere, jendaurrean.

Bohumil: Ni Bohumil naiz, jatorriz txekiarra, bederatzi urte daramatzat Espainiako estatuan bizitzen, azken lau urteetan Donostian. Nik ere ostalaritzan jardun dut azken urteetan, eta nekazaritza eta okintza ere gustuko ditut.

Nondik nora iritsi zarete Igoara, bazenuten harremanik eskualdearekin?

S: Landa eremura mugitu nahi genuela argi genuen, eta baliabide aldetik inguruak ematen zituen aukerak ere garrantzitsuak ziren guretzat. Nafarroako iparraldera begira ari ginen, nolabait.



Sara Crisóstomo eta Bohumil Zacek, Igoako ostalari berriak ▲



B: Bai, eta Donostian bizi ginenean Baztanera eta alde honetara etorri ginen noizbait, mendian buelta bat ematera, eta asko gustatu zitzaigun ingurua. Zubietako Ostatuan aurkeztu genuen proiektua hasiera batean, baina han ez ziguten eman. Cederna Garalur elkartearekin harremanetan jarri zen Sara orduan, eta horrela jakin genuen Igoako Ostatuarena.

S: Bai, hasiera batean ogia egiteko obratzailearen ideia izan genuen burutan, baina ez zen aukera garbirik inon ateratzen, eta beste bide batzuk planteatzen hasi ginen. Igoako Ostata ikustera etorri ginenean, egia da hasieran pentsatu nuela, 'tokitan dago hau...'. Baina jendeak oso ongi hartu gintuen, tokia ere asko gustatu zitzaigun, beheko biltegian obratzailea egiteko aukera ere bazegoela ikusi genuen... eta, azkenean, aurrera egitea erabaki genuen.

Nola antolatzen zarete zuen artean, bien artean ateratzen duzue lana aurrera?

B: Bai, momentuz biok bakarrik ari gara. Ogia batik bat nik egiten dut, baina bestela, prestaketa guztia elkarrekin egiten dugu. Gero, zerbitzua ematerakoan, ni barran eta zerbitzatzen aritzen naiz, eta Sara, berriz, sukaldean. Momentuz horrela ari gara, eta egia da familiak eta lagunek ere lagundu izan digutela, horrekin oso eskertuak gaudete. Udari begira, ordea, hirugarren kide bat ere etorriko da lanera, Donostiako lagun sukaldari bat.

Erabiltzen dituzuen produktuetan ere arreta jartzen duzue, ezta?

S: Tira, saiatzen gara momentu bakoitzean dagoenetik onena ematen. Inguru hau oso aberatsa eta anitza da gauza askotan, eta

“ **Garaiko eta bertako produktuekin lan egiten dugu, eta eskaintza horren arabera aldatuz doa** ”

garaiko eta bertako produktuekin lan egiten dugu. Orokorrean, esanen nuke urte osoan gauza berak jatera ohitu garela, sasoikotasunaren nozioa galdu egin dela, nolabait. Eta, ez da sasoikotasun kontua bakarra, agian urtero ezin ditugu produktu guztiak izan, urte txarra izan delako ekoizpen konkreturen batean... aldaketa horietara eta inguruan dagoenera egokitzea da gure ideia.



Igoako Ostatuko eskaintza

- Asteazken eta ostegunetan, 17:00etatik aurrera zabalik.
- Ostiraletik igandera egun osoan zabalik. Gosariak, bazkariak eta afariak. Menu berezia.
- Garaiko eta hurbileko produktuekin kozinatutako platerak.
- Bertako artisau ogia.

Zein da Ostatuko eskaintza?

S: Behe-denboraldian asteazkenetik igandera irekitzea erabaki genuen. Asteazken eta ostegunetan 17:00etan zabalitzen dugu, normalean goizez herriko jendea lanean egoten delako eta ordu horretatik aurrera datozelako. Ostiraletik igandera, berriz, egun osoan zabalitzen dugu, eta gosariak, bazkariak eta afariak ematen ditugu. Menua izaten dugu, baina berezia da: guk aukeratutako hasierakoak ateratzen ditugu lehenik partekatze, eta plater nagusia bezeroak aukeratzen du, hiru aukeren artean. Baina, lehen aipatu bezala, ez dira finkoak, aldatzen doaz garaia arabera. Eta, bukatzeko, postrea.

B: Bestetik, nahiko malguak gara, eta saiatzen gara jendearen beharretara moldatzen. Esaterako, norbaitek haragirik jan nahi ez badu, aukera begetarianoren bat beti emanen diogu. Edo, herriko jendea badator menua ez den beste zerbait jateko gogoz, moldatzen saiatzen gara. Ostiraletan familiak etortzen dira askotan txikiekin, eta beti eskatu izan digute piz-zak emateko. Bada, pizzak egiten hasteko asmoa badugu, baina guk egindako masarekin. Herritarren eskaerak entzuten ditugu eta gure modura eskaintza egokitzen dugu.

Zer nolako erantzuna ari zarete izaten?

S: Orain arteko erantzuna oso ona izaten ari da, espero genuena baino gehiago ari gara ematen. Uste dut herriak asko gozatzen duela espazioaz. Tira, esana ziguten ostatuza-leak zirela, eta egia da. Eta, gainera, sumatzen dugu babesten gaituztela, ahoz aho zabalitzen ari direla... Lasai etorri ginen, pentsatuz hasieran oso erritmo lasaien hasiko ginela, baina segituan jarri behar izan ditugu pilak. Pozik gaudete.



II Mundu Gerraren

eragina gurean

Marcelino Larrea Bertizen asasinatzea

Orain berriki Pascual Lazkano Zia omendu dute Ilarregin, naziek kontzentrazio-esparru batean hil zuten herritarra. Eta omenaldi honi esker ezagutzero eman da Pascual honen bizitza. Hori dela eta, gutxiago ez izateagatik, ezagutzero eman nahi nuke jatorri ultzamarra duen eta naziek erail zuten bertze gazte baten bizitza: Marcelino Larrea Bertiz.

Marcelinoren aurrekoak eta familia

Marcelino Urrotzen (Malerreka) sortu zen 1917ko ekainaren 24an. Aita, Jose Ignacio Larrea Irisarri, Urrotz berekoa zuen, **Etxeberriko bordakoa**; eta ama, berriz, Juana Martina Bertiz Guzman, Alkozko **Argiñenekoa**, 1872ko urtarrilaren 23an sortua.

Gure protagonistaren amaren al-deko aitatxi eta amatxi honako hauek izan ziren: Pedro Maria Bertiz Aldabe, **hargina** izanzen zena, Alkotzen sortua (1839/09/01) eta Perfecta Guzmán Exposita Iruñeko Inklusan (1850).

Etxekoandre eta hargin hauek zortzi seme-alaben gurasoak izan ziren; eta umeetan zaharrena, Manuel zeritzana egin zuten etxerako, Auzako Manuela Mosorekin ezkonduko zena. Urte gutxiren barnean hil zen Manuel ondorengorik utzi gabe.

Hau horrela, arrebaren eskuetara pasatu zen etxea, aipatu dugun Juana Martina Bertizengana. Eta Alkotzen etxe baten jabe izanik, hobe beharrez, **Argiñenean** jarri ziren bizitzen senar-emazteak eta hemen izan zituzten beren lehen haurrak: Agustina 1900. urtean edo sortua eta Maria 1902ko uz-tailaren 31an.

Alkotz toki ederra, baina Jose Ignaciok hesten ez, eta erabaki zuten Urrotza itzultzea. Familia gu-





Argiñenea ▲

zia, Leurtzako presetako dermioan zen borda txarren batean jarri zen bizitzen, Alkotzen baino baldintza aise txarragoetan eta, urteetara, Urrozko herrira pasatu ziren.

Urrotzen sortuko zitzaizkien hurrenge umeak, Ignacio, Espainiako gerran hilen zitzaiena, **Marcelino** eta Francisco.

Marcelinoren historia latza

Espainian gerra garaiak izaki eta Marcelinok Frantziara ihesi egin zuen. Bigarren Mundu gerra hasieran Frantziako ejertzitoan eman zuen izena. Alemanak Frantzian 1940ko maiatzaren 10ean sartu ziren eta sei astez porrokatu zuten Frantziako ejertzittoa. Eta Frantziako soldatu aunitz eta aunitz

alemanen atzaparretan erori ziren, horien artean gure Marcelino.

Gerrako presoak Alemaniara eramantzen zituzten eta, hain zuzen, Sandbostel-go Stalag XB-n gertatu zen Marcelino, 83477 numeroarekin. Ondoren, 1941eko martxoaren 3an deportatu zuten Mauthausen kontzentrazio-esparrura eta handik Gusen-ekora.

Gusenen granito harrobietan ari behar izan zuen, baldintza ezin gogorragoetan eta osasuna galdu zuen. Hortaz, 1941eko abenduaren 3an, Hartheimgo gaztelura igorri zuten 11784 matrikula numeroarekin. Hemen, oso laster, 1941eko abenduaren 18an gas kamara batean hil zuten.

XVII. mendeko gaztelu honetan, 1940ko maiatza eta 1941eko abendu artean 30.000 lagun garbitu zituzten, adimenez gaixoak, aleman ezinduak edo bertze esparru batzuetatik ekarritakoak, karbono monoxidoaz, ondoren errausteko.

Gerra bukaeran, alemanek, gerra galtzear zirenean, gaztelu hartan gertatukoaren zantzu guziak ezabatu nahi izan zituzten, nahiz ez erabat. 2001-2002an egindako azterketa batzuetan hara non agertu zen Marcelino Larrea Bertizen identifikazio plaka, 11784 numeroa zeramana, errauste labeetan. (1) (2).

Oharra

(1) Idazki hau prestatzeko "Repulicanos de Navarra, Guipuzcoa, Alava y Vizcaya en campos de concentración nazis: los olvidados" Ana García Santamariak idatzitako izkribuaz baliatu naiz, zein **Antzina** aldizkarian atera zen, 22. zenbakian, 2016ko abendu-koan.

(2) Iraizotzen aldi bat bizitu zen Patxi Larrea Bertizekin -Marcelinoren anaia- izandako solasaldietan ere lortu nuen informazioa.

Hiztegitxo

Zeritzana: izena zuena.

Hobe beharrez: para mejor.

Hetsi: hallarse (hitz hau hemen-go ere bada, arrunta).

Gaztelua: castillo.

Garbitu: asko ibiltzen dugun hitza da, norbait asasinatu esan dugunean.

Erraustu: incinerar.

Galtzear: galtzeko momentuan.

Zantzua: rastro.



Lourdes Iraizotz



Idoia Llorens Perezek kosmetika naturaleko tratamenduak eskaintzeko kontsultategia ireki du Muskitzen

20 urte baino gehiago aritu da ohiko kosmetikan, Iruñeko zentro estetiko batean, baina kritikoa da estetika konbentzionalarekin. Alde batetik, itxura edo edertasun hegemonikoa bakarrik bilatzen duen horietaz harago joan nahi du. Bestetik, gure osasunerako kaltegarriak izan daitezkeen ohiko produktuak baztertu eta naturalak direnak bakarrik erabiltzen ditu.

Idoia Llorens Perez Iruñean jaio zen, baina bizitzak Zarrantza eraman du. Tarteetan Satrustegin ere bizi izan da. Imotzen sei urte daramatza, eta, lanbidez estetizista denez, orain Muskitzen zabaldu du bere proiektua. Muskizko Itsasonean du kontsultategia. Hilabete gutxi pasa dira martxan jarri duenetik, baina pozik da erantzunarekin.

Gehiengoa Imoztik etorri zaio, beste batzuk Basaburutik eta baita Iruñeko bere aitzineko laneko bezeroen bat ere. Askok saioa beste norbaitek oparitua: "Ez dugu ohiturarik gure buruari horrelako gauzak eskaintzeko, norberak ez dio bere buruari baimentzen, baina norbaitek oparitua bada pila bat eskertzen dugu. Gure burua zaintzea-

ren kontzeptua aldatu behar dugu, auto-zaintzari, gure buruari, lehen-tasuna eman behar diogu". Eskaintza zabala da: kosmetika tratamenduak, aurpegiko eta gorputzeko azalari zuzenduak; masajeak; pedikura eta manikura, eta abar.

Nola hasi zinen honetan? Nola ikasi duzu?

Ni estetizista naiz, estetika ikasi nuen, baina denborarekin ibilbidea garatzen joan naiz. Hasi nintzenean estetika konbentzionalan egiten nuen lan. Baina ohartu nintzen ez zitzaidala gustatzen, pertsonak ez nituelako horrela tratatu nahi, era hutsoal batean soilik. Izan ere, gehienak estetika arrazoiengatik etortzen zi-

ren, makillatzera edo beren buruaz atsegin ez zuten zerbait aldatzeko, eta horri guztiari buelta bat eman nahi nion. Nire lana zaintzatik abiatu nahi nuen eta ez estetika hutsetik bakarrik. Adibidez, emozioak ere kontuan izan nahi nituen. Eguneroko estresean oso sarturik gaude, eta etortzen den bezeroak tratamendua pausa bat moduan hartzea nahiko nuke nik, norberaren momentu gisa, bere burua zaintzeko. Eta norberaren gorputza onartzeko, "hau da dudana gorputza eta zaindu behar dut", mezu horrekin ateratzea nahiko nuke; ez, kontrara, gure gorputza ez maitatze horretatik abiatzea. Nire tratamenduak auto-zaintzarako tresna izatea nahi dut. Gainera, produktu naturalak erabili nahi nituen.

“Nire lana
zaintzatik
abiatu nahi
nuen eta
ez estetika
hutsetik
bakarrik”





Kosmetika naturala, zergatik?

Naturala ez dena oso kaltegarria da osasunerako, kimiko pila daramalako, metal astunak, adibidez. Kosmetikan baimena dago horren portzentaje bat izateko: metal astunez osatutako zati bat edo petrolioaren deribaturen bat, adibidez. Baina gauza pila bat erabiltzen ditugu, desodorantea, aurpegirako krema, makillajea garbitzekoa, hortzak garbitzekoa eta orduan sustantzia horiek guztiak pilatzen joaten dira. Gainera, bi produktu ezberdinek kontrako eragina sortu diezaiokete elkarri, bi medikamentu ezberdin hartzen badituzu bezala, bata besteari kalte egin diezaiokela. Kosmetika naturala erabiliz, ordea, zure gorputza prest dago kosmetika hori zure alde erabiltzeko. Ohiko kosmetikak hasieran ongi eginen dizu, baina ez luzaroan.

Estetika ikasi zenuen, baina tratamendu hauek egiteko ere prestakuntza jaso al duzu?

Bai, ikastaro pila egin ditut. Tailandiar masajea, *ayurveda* (Indian sortutako medizina tradizionalako adar bat), ekialdeko estetika ikasteko internet bidezko eskola batean jarraitzen dut prestakuntza jasotzen. Ikasteko gauza pila bat baitaude.

Oinarria: esentzia-olioak

Llorenek berak prestatutako produktuak ere erabiltzen ditu. Bakoitzaren azalari egokitutako landare-olioak eta esentziak nahasten ditu horietan. "Azal mota bakoitzari zuzendutako miloi bat esentzia-olio daude. Nik bezeroari aukeratzen laguntzen diot eta emozioaren arabera ere aukeratzen saiatzen naiz, nola dauden, zer emozio nagusitzen den momentu horretan, horiek kontuan hartuta olio bat edo beste bat eskainiko dut".



Idoia Llorens Edertasun Kontzientea

Hitzordua hartzeko,
whatsappez: 606 42 04 80.

Kontsultategiko webgunean
bere lanari eta tratamenduei
buruzko informazio guztia:



Tratamendu ezberdinen artean aukeratu dezakegu?

Sei edo zazpi tratamendu eskaintzen ditut orain. Denborarekin gehiago gehitzen joan bainaiz. Bezeroak aukeratu dezake edo, bestela, nik gomendatzen diot: zenbat diru nahi duten gastatu edo zehazki aurpegian edo gorputzean jaso nahi duen, horren arabera, nik bat edo beste gomendatzen diot. Bezeroa ezagutzen badut edo gutxi gorabehera badakit nor den, usainak berarendako egokitzen ditut. Kontsultategira iristen denean ere ikusi dezaket zer behar duen eta bere neurrira egin dezaket. Tratamenduek iraupen ezberdina izan dezakete. Gutxi gorabehera 35 minutu irauten du motzenak eta bi ordu luzeenak. Tratamenduak nahastu ere nahastu ditzaket.

Nolakoa da zure saioetako bat?

Erritu moduko bat izaten saiatzen naiz. Hitzordua eskatzen didatenean, zer behar duten eta zer nahi duten galdetzen diet, galdera batzuk egiten dizkiet gero tratamenduetan asmatzeko. Bezeroa iristen denean esentzia-olioak, produktuak eta lanparak prest izaten ditut. Bezeroari denbora uzten diot aldatzeko eta infusio bat eskaintzen diot hasieran, gelarekin ohitu dadin. Bukaeran ere, amaitu ondoren ere, beste infusio bat, denbora eta espazioa eskaintzen diet. Eta hurrengo egunean edo egun batzuk pasa ondoren zer moduz dauden galdetzea ere gustatzen zait, hori ere garrantzitsua iruditzen zait.

Zer moduz hartu zaituzte?

Nire sentsazioa ona da. Etorri zaizkidan askori beste norbaitek oparitu die saioa. Askotan gertatzen baita ez dugula ohiturarik gure buruari horrelako gauzak eskaintzeko, norberak ez dio bere buruari baimentzen, baina norbaitek oparitua bada pila bat eskertzen dugu. Gure burua zaintzearen kontzeptua aldatu behar dugu, auto-zaintzari eta gure buruari lehentasuna eman behar diogu.

Beldurra eman zizun irekitzeko pausua ematea?

Aurretik ere ekin izan diot nire proiektuari baina hemen beldurra ematen zidan bailara txikia delako eta ez nekien jende nahikoa izanen nuen. Baina momentuz ongi doa. Udalak ere erraztasunak jarri dizkit, alokairua merke, bestela ezingo nuke. Horrek beldurrari aurre egiten laguntzen dizu, baina, bai, beti dago bertigo pittin bat.

Baina ilusioa ere izanen da.

Bai, hori oso garrantzitsua da. Gauzak zuk nahi duzun bezala edo zure ustez egin behar diren moduan egiteko aukera izatea oso ongi dago.



Santurbeko erromeria



Txalaparta ikastaroa Etxalekun



Lau eguneko trabesia egin dute Pirineotan Iñaki Ariztegi eta Ander Arbilla ultzamarrek



Atetzen, Lantzen, Ultzaman eta Odietan ere euskarari ateak irekitzeko aldarria



Orbela mendi taldekoak bazkarian, maiatzaren 1ean



Ortzadar amandrea Erason



Etsaindarrak, San Isidro eguna ospatzen Basagaizko ermitan



Talo tailerra Etxalekun



Imoztarrek ere Euskaraldian parte hartu dute



Sorionekuak dinamikak dietutako Zubiak Bete ekimena Ultzaman



Basaburua-Imozko mintzakideak



Joh Patxi Okiñena Sanchez, Mungiako binakako pilota norgehiagokan, txapelkun gelditu zaigu, Ramirez bizkaitar lagunarekin batera



Sorionekuak dinamikaren Zubiak Bete ekimena Ultzaman



Kortxea tailerra abesbatza, Etxalekun



Ultzamaldeko jolasa


“Maite ditut, maite, gure bazterrak... zer ikasia ematen digutenean”

Zazpigarren eta azken erreportajea dugu hau. Ai ene, ikasturtea oharkabea pastu da! Atzeneko saio honetan, Alazne Fdez de Muniain erasoarrak **gibel** hitz zaharra ekarriko digu gogora, Ultzamaldeko jolasean gaurgero erabiltzen ez dena, baina leku-izenetan oraindik bizi-bizirik dagoena, ez aspaldiko mintzoaren adierazle. Horrez gain, **itsa(t)s** eta **urdin** hitzen esanahiak argituko dizkigu.

Argibel ohiko izena da Nafarroako toponimian: Igoan dugu, eta beste hamaika txokotan ere bai, hala nola Abaurrepean, Donamarian, Longidan, Urraulgoitin, Otsagabian... *Argibel* leku-izena “*Argiél*” ahoskatzen dute igoarrek, izena are gehiago laburtuz. *Argibelek* ‘harri’ + ‘gibel’ hitzak ditu bere baitan: pentsatzekoa da harri edo malkor nabarmenen bat egonen dela hor nonbait, eta horren gibelaldeari edo atzealdeari egiten diola erreferentzia.

Gaurko hitza **GIBEL** dugu, eta gaur egun erabilera orokorrekoa da Lapurdin, Baxenabarren, Zuberoan eta Nafarroako garaiko zenbait euskalkitan. Hala ere, Erdi Aroko dokumentazioan puskaz ugariagoa da, gaur egun baino askoz leku gehiagotan erabiltzen zen orduan. Pentsa, Gipuzkoako eta Bizkaiko testuetan ere behin edo beste dokumentatzen da, nahiz eta XX. menderako egile gipuzkoar eta bizkaitar kultuek baino ez zuten hitz hori erabiltzen: dagoeneko ‘atze’ forma nagusitu zen, eta gaurdaino hedatuz joan da haranez haran, baita gure alderdira ailegatu ere.

‘Gibel’ hitzaren antonimoa *altzin* da Ultzamaldean, hots, ‘aitzin’, baina Imotzen eta Basaburuan ‘aurre’ dugu. Bilakaera bera izan dute bai ‘gibel’-ek bai ‘aitzin’-ek: erdialdeko euskara “dotorearena” den ‘aurrea’ hitzak *altziña* hitzari lekua hartuz joan da mantso-mantso eta, bistan dago, eskoletan irakatsi diguten euskara estandarrek ere ‘aurrea’



Jaizkibel mendia ▲

formaren zalbaltzea hauspotu du.

Argi dago, beraz, ‘gibel’ hitzak gibelera egin duela, atzera, alegia. Arestian aipatu dugu garai batean hedadura handiagoa izan zuela, eta horretaz jabetzeko Euskal Herriko leku-izenei begiratu baino ez dago: *Jaizkibel* dugu Hondarribiko mendi ezaguna (‘haitz’ + ‘gibel’) eta esanahi berekoa da *Axkibel* leku-izena Arrasaten. Bizkaian ere ageri da, adibidez Bermeon *Gibelortzaga* dugu (‘gibel’ + ‘hortzak’).



Elizgibela toponimoa Zarrantzen, elizaren gibelako larraina ▲

Gurera etorri, *Amengibel* dugu Muskitzen. Amen herrixka Muskitz eta Hiriberri artean omen zegoen. Toponimo horrek, orduan, Amen herriaren gibelako edo atzeko lekuren bati egiten dio erreferentzia. Eltzaburun *Arburugibela* dugu (‘harri’ + ‘buru’ + ‘gibel’, harri nagusi baten gibellean dagoen paraje bat, aurki). *Arrizgibela* leku-izena dugu Arraitz-Orkinen (‘Arraitz’ + ‘gibel’, beharbada?), *Elizgibela* Zarrantzen eta Muskitzen (misterio handirik gabekoa: elizaren gibelako aldea), *Irigibel* Gaskuen (hiriaren edo herriaren gibelaldean dagoena), *Otsagibel* Leazkuen (‘otso’ + ‘gibel’), *Piñadigibel* eta *Lausketagibel* Egozkuen (lehena pinudi baten gibelaldea, eta bigarrena ezin jakin), *Aztagibel* Eguaratsen (Aza dermioaren gibelaldekoa), *Etxegibel* Aritzun, *Irusogibel* Berueten, *Mendigibel* Eritzeagoitin, *Itsasgibel* Zigandan...

Itsasgibel aipatu berri dut eta, labur-labur eten ttiki bat eginen dugu: ‘itsa(t)s-’ elementua duten izenek (Itsaso herria, Muskizko *Itsasonea*



EHHAeko mapak gaztelaniazko "Parte trasera" itemarentzat dakarrena.

etxea, Zigandako *Itsasgibel* toponimoa...) ez dute inolako loturarik itsasoarekin, baizik eta 'isats' landarea-rekin, hots, gaztelaniazko "retama" zuhaixkarekin. Are gehiago, hemen zorua garbitzeko tresnari 'isatsa' edo *isetsa* deitzen zaio.



Isatsak edo isetsak, ze etxetan ez dago halakorik?

Leku-izenetara itzuliz, Nafarroa osoko zenbait toponimo ekarri dizkizuet, ikus dezagun 'gibel' hitza arrunt ugaria zela bere garaian. Gaur egun, leku gehienetan toponimoek baizik ez dute gordetzen mendeetako nafarrera hura: *Aizetagibel* (Obanos), *Abaizgibel* (Eslaba), *Araingibelea* (Bidankoze), *Arangibel* (Sarasibar), *Atakagibel* (Erro), *Bagadigibel* (Sunbilla), *Barazgibela* (Biloria), *Mendigibel* (Artazu), *Buztingibel* (Zabaltza), *Kostagibel* (Adios), *Ornaizgibel* (Goñi), *Dorragibel* (Leotz), *Buztintzagibelea* (Allin), *Etxagibel* (Albiasu), *Gurutzegibela* (Uxue), *Igaragibel* (Urdiain), *Latxagibel* (Garralda), *Oiangibelea* (Girgillao)...

Horrenbestez, hemengo lehengo hizkeraren arrastoetako bat da 'gibel'. Gaur egun, ordea, gure zazpi ibarretan 'atze' entzuten dugu: atzean, atzetik, atzeko alde... baita euskaldun zaharren ahotik ere. Hara zer bildu zuten EHHAeko inkestagileek gaztelaniazko "parte trasera"-rentzat:

Alkotz: *atzéko aldeá*
Suarbe: *atzekoalde*
Igoa: *átzekoaldé*
Beruete: *atzékoaldé*
Etxaleku: *átzekoaldé*

Gure eskualdetik ipar-ekialdera, ordea, *gibelékoalde* dugu Baztanen eta *gibeláldea* Eugin, eta oro har handik ipar-ekialderagoko herri guzietan. Aldiz, gure mugetatik hego-mendebaldean *átzekáldé* dugu Sakanan, *átzekoaldé* Larraunen eta *atzé* Leitzan. Nola ez, Euskadi osoan dugu 'atze', eta handik etorri zaigu Nafarroara, Gipuzkoatik neski.

Nolanahi gisa, ez zaigu batere arrotza 'gibel' hitza: hurbila zaigu, eza-guna da Ultzamaldeko euskaldunon memoria kolektiboan. Gainera, erabili ere erabiltzen dugu beste zenbait kasutan: adibidez, ziza-biltzaileak bazarete, 'gibelurdin' zuen lexikoaren parte izanen da, ziur. Euskal Herri osoko hitza da, bazter guzietan 'gibel' hitz zaharra gorde dena. Izena entzunda, espero genuke gibelaldea edo atzealdea (gaina, alegia) urdin kolorekoa duen ziza izatea, ezta? Bada, ez! Kolore alda-korreko ziza da, espeziearen ara-

bera: batzuk berdexkak direla, beste batzuk moreak... eta gibelaldea arrosa-krema kolorekoa duenik ere bada.

Baten bat bere buruari galdetzen ariko zaio oraindik: baina, orduan, zergatik 'gibelurdin', kolore urdinik ez badu? Beste kontu bat argituko dugu: 'urdin', historikoki, kolorea adierazten duen adjektibo gisa erabili da, bai; aferra da kolore urdinak gutxienez zurixka, grisa, arrea eta azula bere baitan hartuko litzuzkeen kolore-tartea izendatzen duela, horiek denak nahasian. 'Urdin' adjektibo historikoa ez da gaur egun burura heldu zaigun zeru-urdira. Horrexegatik, ziza gibelurdiraren gainak kolore edo tonu nahas-mahasa izan dezake, grixantxa, azken finean.

Begira, *Aitzurdirin* dugu Ollon eta Zudairin, *Arriurdiñeta* plaza dugu Txantrean (Iruñean), *Urdiñaga* Urraulgoitin, *Mugarriurdirin* Leitzan, *Munurdina* Eulaten, *Pagourdineta* Orbaizetan, *Urdinbide* Bakaikun... Eta, berriz ere, ez zaizkigu mintzo zeruaren koloreaz, kolore grisaxka baizik. Zergatik uste duzue kalparrean 'ileurdirnak' ateratzen zaizkigula? Bai, bai, gaztelaniazko "canas" euskaraz 'ileurdirnak' dira!

Tira, hainbat kontu argitu ditugu gaurkoan ere. Jakin badakizue irakurgai hauek irratsaio modura ere eskura dituzuela www.amezti.eus-en, noiznahi aditzeko. Espero dut ikasi eta gozatu izana, eta balioan jarri izana gure parajeetako jolasa, gure ingurua hobeki ulertu izana, eta ausardia eta konfiantza hartu izana (edo aurrerantzean hartzea) ikasitako hitzak erabiltzeko: **KARRIKA, OIHANA, APEZA, MALKORRA, ALORRA, USPELA** eta **GIBELA**. Azken hori izan ezik, aurreko guziak bizirik daude gure xaharren hizkeran oraindik. Eman diezaiegun segida, luza dezagun haien biziraupena! Berriz arte, adiolo!



Alazne Fdez de Muniain



Maiatzeko edukien artean, nabarmenena

Maiatzarekin eguraldi eguzkitsua ere iritsi da eta hori gure edukietan ere nabaritu da. Agenda handitu egin zaigu eta Esan Erraneko Egun Ero irratsaioko gonbidatuen aldartea ere alaia da. Ikusi hemen gure webgunean igotako azken edukiak.

Elkarrizketak

Esan Erran irratiako magazina dugu Egun Ero. Eta, astelehene-tik ostegunera elkarrizketa eta kolaborazio bana izaten dituzte. Elkarrizketen artean hauek nabarmendu ditugu.

hausnarketa bat da *Erraiak*. Arbasoen oihartzuna filma.

Entzun



Erraiak dokumentaleko zuzendariari

Ekain Martinez de Lizarduy irakaslea eta film zuzendariarekin hitz egiteko aukera izan genuen. Erraiak dokumentala aurkeztu zuen Erason eta nondik norakoak kontatu zizkigun irratan. Irrintziari buruzko analisi eta

Seme-alabak eta sexualitatea

Ikasturtean hainbat prestakuntza eta hitzaldi antolatzen ditu Sustraiak Larraintzarko Guraso Elkartek, normalean, Gizarte Zerbitzuen mankomunitatearen laguntzarekin. Sexualitatea kezkatzen duen gai bat da eta honetan ere horretaz hausnartzeko

saioa antolatu zuten. Iratxe Arretxea sexologoak gidatu zuen, eta guk elkarrizketa egin genion Esan Erran irratan.

Entzun



Kolaborazioak

Aipatu bezala, elkarrizketa gisa, kolaborazio bana izaten da magazin bakoitzean. Hilabete honetan hiru nabarmenduko ditugu.

Eztena eta Badena: anfibioak

Eneko Iurramendi 'Tinto'k eta Mikel Lakastak egiten diguten atala da Eztena eta Badena. Eta, aurten, animaliei begira jarri eta datu interesgarriak eta bitxiak ekarri dizkigute. Azken honetan anfibioei buruz.

Entzun



Spoiler Alert!

Jule Goñik film eta telesail gomendioak egiten dizkigu hileko irratan. Honetan The Royal game pelikula, eta Facil (seriea baino, 'Lectura facil' liburua da gomendatu duena) eta Que ardan todos serieak.

Internazionalismo atala

Txuri Ollo militante internazionalistak, bestetik, begiak ireki eta

munduko txoko ezkutatueta eramatzen gaitu, inperialismoak eta kapitalismoak zapaltzen dituzten txokoetara, bereziki. Maiatzean Kaxmirrera eraman gintuen, oraindik gutxi entzunda genuen eremua, eta azken aspetean aho guztietan egon dena.

Entzun





Egun Ero Kantuz: Leire Arrieta Rekondo

Egun Ero Kantuz saioak, berriz, Gaskuen bizi den Leire Arrieta Rekondo segurarraren kanta zerrenda kuttuna ekarri digu.

Egun Ero Kantuz
Leire Arrieta



Broma Gutxi

Egun Ero eta Egun Ero Kantuz eta Memoriaren Txokoa saioekin batera Broma Gutxi osatzen du Esan Erraneko programazio propioa. Tipul Menierrek gidatzen du saioa eta bertan garai guztietako

hardcore punk biniloak jartzen dizkigu, musika bere hausnarkekin lagunduta.

Broma Gutxi 27



Zorionak
Zorionak!

Anhaneh, Oihaneh, Enareh, Maddik, Arratzyeh, Asierreh, Urhok eta Ointatzyeh urteak bete dituzte. Zorionak!



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com



Esan omen zion behin...(6)

Erran men'tzion..., esan ben'tzion...

Bixkiak ekarri zituen gaztea

Aspaldi entzuna nion Felipe baztandarrari kontua eta, atzo, aspaldiko partez, berarekin egin nuen topo. Non, eta mendian, jakina! **Iruñeko Gaztelu Enparantzan elkar topatzea zailagoa da, zailagoa denez!**

Solasean hasi eta hau eta hura, hori eta hau ari ginela, behin kontatu zidan bixkien kontu hura aipatu nion eta erregutu kontatzeko.

-Hi, Felipe, nola yun Baztango bixkien (bibiro) kontu hure?

-Aitte-semiak fabriken ai'tzen zituken eta semia arront ttikie zin; eta bakik, atte asto xamarra eta semia gutxiagotzat-edo zian, ttikie zelakoz... hola... mespretxuke tratatzen zian. Eta eun batez semia ezkondu bear zula eta attek muturria bota:

-Ze hazie botako duken hik!

-Ba, zuk añekoa botak'ot betire! Ta gio bixkiek karri!

Gauzak nola izaten diren! Aita harroa irrigarri utzi zuen semeak! Seme ttiki horrek bixkiak izan zituen, bibiroak, Baztanen erraten duten bezala.

Horrela izaten da aunitzetan, bota bai, baina zer erantzun hartuko duen, batek ez jakin.

Kontu honek beste hau dakart burura. Herri bateko Herrikoetxeko salan herriko gizonak batzarrean.

Oholtza eta bertako mahai buruan Alkatea, ttikittoa, idazkaria eta diruzaina. Gainerakoak koska bat beherago eta bertan zen etxejaun bat, otzarra, mehatxuka hasi zitzaion Alkateari.

Eta honek, kokildu beharrean, ausardi handiz, hara zer bota zion:

-Zer uste duzu zuk, gizonak metroarekin neurtzen direla?

Eta honetan ere, azpitik gora mehatxuka zebilenak ez jakin zer nolako erantzuna jasoko zuen!

Pagatzaile txarraren kopeta

Eta hau ere ez da ba urrutikoa.

Gerra ondorenean izanen zen kontu hau. Orduan zenbaitzuk esnea han eta hemen bildu eta Iruñera eramaten zuten saltzeko. Negozio horretan hasi zen franko izan zen gure alderdian. Gurean ere hala hasi zen gizon gazte indartsu bat, nekazalgoan aritzea asko-asko gustatzen ez eta negozioetan aritzen zena, kontrabandoa zela, esnea erosi eta saltzen...





Hala, denbora labur batez ibili zen esne kontu horrekin. Baina nekoso samarra zela eta utzi egin zuen. Negozioa utzi eta beste zerbait ere bai: zorra, esnea bildu zuen etxe guzietan. Zorra utzi!

Egun batez, Felipa, negozio gizon horren andrea, ustez zintzoa, baina benetan, senarrarekin burko berean lo eginez gisa berekoa bihurtu zenaz, hara zer kontatu zigun nekazari adiskide batek:

E'tziten paatu, e'tziten paatu, ta handik urte'atzuta, gure itxin lau mile pezta utzi zittiten zorra ta, Felipa auzoko itxaa etorri aizpengana bixitatzi, ta gue amak ikusi zuniin bidia atia eta:

-Bueno, Felipa esnin kontuu-eta in biarko ttuzue ba!

-Diru horren premiin zaute? E'tzaute oso ongi!!!!

Eta horrela gelditu zen dena. Dirutza hura kobratu gabe eta eran-

tzun anker batekin. Garai hartan dirutza zen gero 4.000 pzta!!!

Kopeta gaiztokoa, senarraren parekoa.

Kontuz ibili, pagatzaile txarraren gaitzak laugarren generazioraino gutxienez segitzen baitu, errez joaten ez den gaitza baita hori!

Berueten ostalaria gau beranduan lo!

Marcos Garro Garro, **Idiagako** semea, ostalari egon zen **Garaikoan** bizitu zenean. Gertaera hau 1935a baino lehenagokoa da.

Igande batez, gau beranduan, ostalaria lo, eta hola kontatzen dute:

"... ostatun denak, eta ia atzenean, tabakoik gabe gelditu bakarren bat yokun ai'zeela, ta ostalarii erdi loan eo, batek daki!... lo igual, eta,

-Markos, ekatzak ziarro'at, lo ez baiu!

Eta orduan Markosek kontestatu:

-Lo niok!"

Oharra: Guk gerok ere ezagutu izan ditugu ostalariak logalez beren buruari eutsi ezinik! Orain ez da holakorik, ostatua bere orduan hertsu eta kito!

Jitoa, pintatzailea eta ernea

Fabian de Castro Heredia (Jaen, 1868-Paris, 1948) pintorea.

Jitoa omen zen, eta gazte denboran hainbat ofizio izan zuena, gitarra jotzailea ere bazen eta flamenco talde batean sartu omen zen eta Parisa joan taldearekin. Errusian ere ibili zen balet talde batean arrakasta handiz. Nolanahi dela, Paris zuen bihotzean eta itzuli egin zen. Bertan zen Espainiako pintore andana eta, dirudienez, hauen adiskidantza eraginez edo, pintatzen hasi zen.



▲ Elizondo dugu. Baztango herriburua



Erljio laukiak edo koadroak egiten zituen batez ere. Fama ere bildu zuen bere estilo propioagatik Europan, eta batez ere Paris eta Londresen.

Bera fama aurretik zuela Bartzelonan erakusketa bat egitea erabaki zuen, baina anarkista izatea egotzi zioten eta bertako Gobernadore Zibilari bidali zioten salaketa Kristo bi zibilek pilare bati lotzen ari zela erakusten zuen koadroagatik. Severiano Martinez Anido militarra zen Gobernadore, hainbeste anarkista fusilatu zuen odoltzale amorratua (1920-1922 artean izan zen Gobernadore)

Hala esan omen zion Gobernadoreak jitoari:

-Zutaz erreferentzia onak ditut, jito zarra! Baina koadro hori, zibilak agertzen diren hori, lotsagarria da!

Eta Fabianek, hitzetik hortzera:

-Jakizu zuk, lotzen edo laxatzen ari direnik!?

Pintorearen zirtoaz, ateraldi bizkorraz gustatu eta erakusketa antolatzea utzi omen zion.

Aita xorrokoa

Alaba, aita hil zorian zenaren zain-tzan, gela ilunean.

Leihoan goizaldeko argia sartzen hasi da eta aita azken hatsa eman du.

Salto batean neskatzak beheiti egin du, anaiari aitaren heriotzaren berri ematera.

-Atte hil duk. Fini duk.

-Segur yaiz? Xorrokoa dun gero hori!!!!

Xorrokoa aita, bihotz gogorra semea. Semeak aita pasatu zuen.

Ez dugu hemengo kontua, baina

bai gertakari hori kontatu didan adiskidea.

Nire arrebak konpondu hau!

Batzar-gela bete-betea, ez dakit zer den gaur eztabaidatu eta erabaki beharra, baina gutxitan bezala, ordurako herri guzia bildu da, puntual. Badira susmo txarrak. Zertaz hitz egin behar ote dute?

Batzarrari hasiera eman eta, gauza bat, beste bat, beste bat... Noizbait iritsi da jendearen jakin-mina sortu duen gaia!

Eztabaida biztu da, batek hau eta bestak hura. Haserrea ere sortu da eta halako batean Ferminen bere koinatuari, Migeli, zuzendu eta berealdikoak bota dizkio. Harrigarria, nahiz koinatua izan, halako gauzak esatea denen aurrean. Kaka eta pixa egin dio burutik behera, eta hala ere Migel isilik, mugarri bat bezala, poste bat baltitz bezala. Migel zertan ari ote da pentsatzen? Kontuz honekin, betikoa da hau, ironikoa eta burlatia. Eta zakur-zakarra ere bai, tokatzen denean.



Fabian de Castro, John Peter Russell egilea (Wikipedia)

Noizbait bukatu du Ferminen eta Migelek txanda hartu eta hala bota dio:

-Hago, hago, nire arrebari kontatu behar zioat hau dena! Hark konponduko hau!

Fermin isilik gelditu zen eta gainerakoak ere bai, lotsa harturik edo; baina gehientsuenak irriparrari ezin eutsiz ezpainak hestuturik Migelen ateraldi bizkorra zela. Ez zen gutxiagorako alajaina!

Berueten bildu nuen hau

Beste hura bezala, hasi omen da hizketan bere adiskide zahar batekin eta zapla, zerbait esan behar eta:

-Zartu gattuk.

-Jakiña, ez giñoken hil eta!



Txurdan

Hiztegittoa

Solasean: hemen jolasean, hizketan.

Otzarra: agresivo (Otzanaren kontrakoa).

Kokildu: kikildu (hemen kokildu erabiltzen dugu).

Oholtza: tarima.

Kopeta: nolako kopeta! (erdaraz, qué cara).

Burko berean lo egiten duena (esaldi ezaguna dugu).

Ankerra: gurean esanahi beretsuarekin: akerra.

Arrakasta: éxito.

Zirtoa: ateraldi zorrotza, askotan irrigarria.

Xorrokoa: malicioso.

Zubiak

behar omen ditugu

Ardo frexkoa



Baina non, nora?

Zubia dugu hizkuntza. Hau da, zubia behar niregandik zuregana: ihardukitzeko, elkar ulertzeko, adiskidetzeko, harreman zuzenak izateko eta, azken batean, maitatzeko.

Eta horretarako hizkuntza bizia, jostaria, moldaerraza, gure arbasoek zekitena eta guk hobetu duguna?. Dena dugu behar.

Horregatik behar dugu euskal Zeta (Z). Eta TeZeta (TZ), TeSea (TS) eta IXA (X).

Eta horregatik ez dezakegu ele bi-

koitzaren (LL) hotsa galdu, beharrezkoa dugulako, gure-gurea izan delako eta, zorionez, oraindik, zahar eta gazte askorena ere bai.

Lokuzioak eta esaldiak atzendu? Inola ere ez. Zaharrak ikasi. Eta berriak ere sortzen baditugu hobe!

Gure arteko zubiak. Zubiak, eta seguruak gainera. Eta ederrak baldin badira hobe!

Hortaz diot nik, zergatik zubiak mehartu, ahuldu edo erortzen utzi?

Hortaz diot ba nik: zergatik utzi bazter hiketa, zuketa eta behorreketa?

Zubien altxatzeko nahia beharko dugu; bai, gure herriko zubiak berriz eraiki, zutik direnak sendotu eta konpondu. Horrela aise igaroko ditugu bereizten gaituzten ibai eta errekek.

Eta zer esan euskal azentu gozoaz? Espainol azentu gogaikarria geureganatu eta euskal azentua bota? Utikan! Zubi hau behar beharrezko eta nahi eta nahiezkua dugu. Zer kasu kutxi egiten zaion!!!!



Latasako Plazaolako zubia, euskaldunez betea! ▲

Hiztegitxoa

Jostaria: jostatzea gustuko duena.

Moldaerraza: flexiblea, versátil.

Lokuzioa: esapidea. Adibidez, “gose pasatua” edo “bete-betea asmatu”.

Zuketa, hiketa eta behorreketa: aditzaren aldaketa, jendea bere adin, ezagutza-maila edo kategoriaren arabera tratatzeko.

Eraiki: construir.

Gogaikarria: repugnante.

Ardantzea: mahastia.

Ohoina: lapurra (Ohoina Iparaldeko hitza da eta literaturan asko erabiltzen da).

Zubiak Ameriketara joateko? Zubiak Txinara joateko? Zubi horiek eginak daude honezkero, hor dituzu **itzultzaile tresnak**, zuk euskaraz hitz egin eta edozein erdarataraz pasatuko dizuna, ingelesera, txinera edo swahilira. Turismoa egiteko ez da gehiagoren beharrik. Eta testuak irakurtzeko ere ez. Dena tresna ttar batekin konpondua. Eta beste 5-10 urtean lan hau guzia izugarri doitu eta perfekzionatuko da. Beraz, nik uste hainbeste ingeles beharrenez beste zerbaiten beharrenez gaudela. AEBetara matematiko bezala eraman dute ezagun bat, matematiketan iaioa zelako, buru handikoa, baina ez in-

geleraz zekielako, arrunt maingua baita horretan.

Gure-gurea dugun hizkuntza ikasi beharko genuke ongi, bere aberastasun eta ñabardura guziekin. Horretan beharko genuke saiatu, baina badirudi haizea beste nonbaitetik jotzen duela. Euskañola entzuten dut, espainola ez denean. Zubiak eraiki beharrean, zubiak botatzen ari gara Euskal ardantzeari. Ardantze aberats izandakoa kiskaltzen ari gara eta lapurrek jabetu zaizkigu. Lapurrak? Bai, ohoin maltzur madarikatuak, ardi larruz jantziak. Ez dituzue ezagutzen?



Txurdan



Juan Mari

Bengoetxea Dorai

Euskaldun bat hil zaigu

Arrarasko **Urrutiako bordako** semea, 1950ean sortua. Beharrak bulkatua Bengoetxea-Dorai familia herria utzi eta Berriozarra lekualdatu zen. Eta 2025eko maiatzaren 11an utzi gaitu betiko Juan Marik; gaitz txar batek eraman du, oraindik ustez, sasoiko uste genuenean, oraindik lanerako prest zenean.

Juan Mari, Arrarasko eskola bukatu ondoren, mendian, Frantzian eta beste hainbat lekutan, lanean aritutako langile bizkorra.

Oihanetako lanak utzi eta fabrikan hasi zen lanean. Piedad Begiristain iturmendiarrarekin ezkondu

eta Berriozarren hazi zuten familia: Jon eta Alaitz seme-alabak.

Juan Mari, izaera sendoko gizona izan da. Aldi berean, bihozbera eta xamurra. Euskaldun petoa, ahal zuen guzietan euskaraz eta euskaldun agertzeko lotsarik izan ez duena: euskara eta Euskal Herria-

ren alde agertzeko aukera zuen guzietan ez zen atzean geldituko, ez horixe! Gizon ondradua eta soila, jendekoia eta maitekorra. Eta niri gehienik gustatzen zaidan **dohaina** Juan Mariri eransteko ez dut dudarik: gizon **fierra** izan zen Juan Mari. Fierra!





Txeke zuririk ez! ▲

Baina nola utzi esan gabe, Euskal Herriaren eta batez ere euskararen etorkizunaz zuen kezka? Hainbeste gexur, hainbeste baikorkeri ustel saldu diguten garai honetan zuen argitasunak harritu ninduen. Eta bere argitasunak eta borrorak gogoak. Oso-oso kezkatu ze goen euskararen etorkizunaz. Bai, burua argi, egoera ilun eta erreallitatea gordinari buru egin behar, hori zuen eginkizun. Politiko eta agintari antieuskadunak Nafar Gobernuan, Espainiakoan eta Frantziakoan. EAEko Gobernuak ere euskara eta euskalduna baztertuta dute. Gobernuetan ez-ezik beste hainbat erakundeetan berdintsu. Eta gure jendea lo, hori izan dugu askotan mintzagaia Juan Marirekin. Erreallitatearen ikuspegi goibela ez zuen gogoko, baina hala hartu behar. Eta hala ere baikor lanari ekiteko.

Eskerrak azken aldi honetan zenbait euskaldun trebe eta erne altxatzen ikusten ari garen! Bazen garaia! *Juan Mari, bayun garaie!*

Gizon inportantea izan dugu Juan Mari. Nola ez da izanen gizon inportantea gure herrian euskaldun bizi eta euskaldun jardun duen gizona? Nola ez da inportantea izanen hainbeste utzikeria dagoen garai honetan?

Hutsune ederra utzi du Berriozarren, batez ere jende abertzale eta euskaldunen artean. Eta gure alderdian ere bai, gizon erreferente bat izan dugunontzat!

Arrarasko kasta, Arrarasko fruitua, Euskal Herriko esperantza.

Bizi bedi Juan Mari beti gure bihotzetan! Eta ekin diezaiozun lanari! Euskaldunok euskaraz!!!!



Txurdan

Hiztegia

Jendekoia: jendearekin egoteko gogo bizikoa.

Fierra: hitzekoa, langilea eta adoretua den pertsona (Hitz hau gurean asko erabilia, orain ia atzenda. Erabiltzeko ere aukera gutxiago ote dugu?).

Baikorkeria: optimismo faltsua.

EAE: Euskal Autonomia Elkargoa (Sartaldeko hiru probintzien autonomia elkargoa).

Goibela: tristea, kasu honetan.

Baikorra: optimista.



Basaburuko

Ahaztuak

Faxismoak errepresaliatutako Basaburuko medikuari eta Igoako maisuari omenaldia

Maiatzaren 18an, igandearekin, egin zuten omenaldia Basaburuko Ahaztuak taldeak bultzatuta. Bertan izan ziren Francisco Javier Iturbide medikuaren eta Nemesio Delgado maisuaren oinordekoak ere.

Herritar ugari bildu zen, ia 80 pertsona, Jauntsaratsen, Txokolateroren etxearen atzealdean, tartean, Francisco Javier Iturbideren eta Nemesio Delgadoren oinordekoak ere bai. Endika Legarra Goldarazko (Imotz) jatorria duen bertso-lariak bertso batzuk eskaini zien; eta, Oihana Fernandez Iturrik eta Jule Goñik abeslariak Berri Txarrak taldearen *Maravillas* kanta eskaini Teresa Zabalezak teklatuarekin lagunduta.

Urtetako isiltasunaren aurrean, memoria

Basaburuko Ahaztuak elkarteak bailarako errepresaliatuen memoria berreskuratzeko lana aldarrikatu zuen ekitaldian, isiltasunaren eta ahanzturaren aurrean. Bestalde, Basaburuko Udalak indarkeria frankistak errepresaliatutako bizilagunekiko konpromiso irmoa adierazi zuen. Barkamena eskatu zitzairen ere, formalki, bi auzokideen senideei: "Basaburuko Udala denbora luzeegian isilik egon delako", udal ordezkariak azaldu zuten bezala. Osasun-zentroan eta eskolan plaka bana jarriko dira bi-degabekeriaren oroitzapena mantentzeko: "Jakinda, horrek ez duela inolako zorrik kitatzen. Presente baino ez ditu egiten".

Fco. Javier Iturbide Amezketa (Iruñea, 1880-1951)

Dionisio Iturbide Baigorri notarioaren semea. Aita 1893ko maiatzaren 28ko manifestaziora, *Gamazada* deitu zen lehen ekitaldi publikora, dei-



tu zuen batzordeko kidea izan zen. Fco. Javier Iturbide Amezketa, hainbat herritako medikua izan zen, besteak beste, Abartzuzan, Lekunberrin eta Aizoainen, non 1918ko gripe epidemian egindako lanari esker, errekonozimendu publikoa jaso zuen.

Estatu-kolpea hasi zenean, Jaun-

tsaratsen zegoen mediku, Basaburuko plaza betetzen.

Bailarako jendeak atxilotu zuen eta tratu txarrak eman ondoren, 1936ko uztailaren 27an Iruñeko agintari berrien esku utzi zuten, eta haiek espetxean sartu. Handik denbora gutxira irten zen, baina ez zioten bakean utzi, behin baino gehiagotan atxilotu baitzuten gero. Azken 3 hilabeteko atxiloketaren ondoren, Iruñeko haurtzaroko lagun batek, une horretan falangista zen goi-kargudun batek, espetxetik atera zuen, baina Falangean izena emateko aholkatu zion, bere segurtasuna bermatzeko. Hala ere, bere bizitza arriskuan zegoenez, 1937an, lagun berak, Espainiatik alde egiteko esan zion. Horregatik,



Francisco Javier Iturbide semearekin



Guillermo Frías Arizaleta errepublikarraren bitartekaritzarekin eta bere seme zaharrenarekin, Francisco Javier Iturbide Urmenetarekin, Baztan zeharkatu eta Frantziara ezkutuan ihes egitea lortu zuten. Gero, errepublikaren eremura joan zen eta mediku lanak egin zituen Valentziako preso frankisten eremu batean.

Gerra amaitu zenean, Iruñera itzuli zen baina urtebetez etxetik irten gabe egon zen atxilotua izateko beldurrez. Geroztik, mediku gisa jarduteari ateak itxi zitzaizkion, eta erretiroa hartu baino lehentxeago arte ordezkapenak bakarrik egin ahal izan zituen, eta horrek larriki eragin zion berari eta bere familia zabalarari.

Lana aurkitzeko zailtasunak beren seme-alabek ere pairatu zituzteenez, alarguna eta Iruñean bizi ziren zazpi lagunak, Venezuelara erbesteratu ziren. Seme zaharrena, Frantzisko Xabier, errepresioa eta kartzela ere jasan zituena, Mexikon erbesteratua zen aurretik.

Nemesio Delgado Gutiérrez


(Isar, Burgos, 1901/08/01 - Donostia, 1971/12/21).

Nemesio Delgadok Igoako maisu izateko plaza lortu zuen Errepublikak gazteak lehen urratsak eman eta hezkuntza-sisteman aldaketak garrantzitsuak egin zituenean. Garai hartako egunkariek 1932ko azaroan gogorarazten digutenez: "Herri eskola baten inaugurazioa, distira eta animazio aparta izan zituen ekitaldia. Bertan izan ziren Udala, medikua eta idazkaria, Martín Lecue y Compañía kontratista eta Nemesio Delgado maisua, zeinen lan pedagogikoa oso gorai-patua izaten ari den. (...) Zorionak eman nahi dizkiogu Igoako herriari eskola hau eraikitzeagatik. Izan ere, eskola horren beharra hainbeste nabaritzen zen, eta zorionak ematen dizkiogu Delgado irakasleari, oso erreferentzia goresgarriak bai-

titugu irakaskuntzaren aldeko bere grinei buruz".

1936ko abuztuaren 1ean bailarako bizilagunek atxilotu eta Iurretan zeuden indar kolpisten esku utzi zuten. Handik Iruñeko probintzia-espetxera eramane zuten. La Merced kontzentrazio-esparruan ere eman zuen denboraldi bat eta azaroaren 1era arte egon zen kartzelan. Handik egun gutxira, berriz atxilotu eta askatu zuten, 1936ko abenduan. Kartzelatik irtetea eta bere maisu lanbidean aritzerik ez zuenez, La Madrileñan hasi zen lanean, Gazteluko Plazatik gertu dagoen gizonezko arropa-denda batean. Berrir atxilotu eta aske utzi ondoren, 37ko martxoan, lagun batek fusilatua izateko zerrenda batean zegoela kontatu zion, eta Frantziara oinez ihes egitea erabaki zuen. Hortik Kataluniara igaro zen Portbouko lepotik. Bartzelonan jarri zen bizitzen eta irakaskuntzara itzultzea eskatu zuen eta Gobernu errepublikarrak bere eskubide profesional guztiak berriro zizkion. 1938ko urtarrilera arte aritu zen maisu.

Bere kintarekin mobilizatuta infanterian sartu zen armada errepublikarrean, eta bertan zauritu zuten. Gerra amaitu ondoren, itzulerako bide bera egin zuen eta Iruñen entregatu zen. Berrir espetxeratu zuten eta Gerra Kontseilu baten



Nemesio Delgado, Igoako maisua ▲

aurrean jarri zuten, matxinadari laguntzea leporatuz. 1939ko apirilean, Burgosko agintari militarrek Iruñeko epaitegi militarren haren portaera ikertzeko eskatu zioten eta kargutik kendu zuten. 38 urte zituen. Lekunberriko Guardia Zibila postuko komandantearen arabera, Nemesio "jaun estimatua zen herriko bizilagunekin oso adeitsua zelako; klasean asko irakatsi ohi zuen, baina erlijio-jokabidean konfiantza gutxi ematen zion, mezarik ez baitzuen entzuten jai egunetan, Fronte Popularrak irabazi zuenetik (...). Oso ezkertiarasunez pozoitutako pertsona jotzen zuen, nahiz eta hemen zegoen giro eskasagatik ezer gutxi egin ahal izan; aipatutako bailaran ez zegoen inongo ideologiako zentro politikorik, baina, hala eta guztiz ere, Iruñean militatu zuen *Erradikal Sozialista*n 1934ko uztailaren lehenera arte, Iruñean ere sartu baitzen *Izquierda Republicana*n, eta Nazioarteko Sorospen Gorrirako zigiluetan kotizatu zuten irakasleen zerrendan agertu zen. Gainera, Azaña eta Casaresek jarraitutako politikarekiko atxikimendua sinatu zutenetako bat izan zen. (...) Mugimenduaren aurreko maisu-maistren bilera batean izan zen, Lizason, eta bere kideei agur esaten ikusi zitzaion, ukabila goratuta. Bere lankideek ez zioten erantzun".

Urtebeteko espetxe zigor txikia ezarri zioten, zegozkion zigor osagarriei (1941). Espetxetik atera zenean, behin baino gehiagotan eskatu zuen irakasle kargutik kentzearen neurria berrikusteko, baina Hezkuntzako Batzorde Nagusiak berretsi egin zuen. Bere lanbidean jardun ezin zuenez, Gregoria Markotegi emaztearekin eta Sole alabarekin erbesteratu zen Venezuelara. Caracaseko La Salle ikastetxean lortu zuen lana, eta han jarraitu zuen erretiroa hartu arte. Donostiara itzuli zen bizitzera, eta han hil zen 1971ko abenduan. Markotegi familiaren panteoian lurperatu zuten, Iruñean.



Azken txanpa!

Ikastaroa amaitzen ari gara, baina oraindik geratzen zaigu jardueraren bat ekainean, Ostiral Kulturaletan. Ekainean, halaber, gure ohiko kartela (El Fary igerilekuan irakurtzen agertzen den irudi sinestezina) jarriko dugu liburutegiko atean, udako ordutegiarekin. Eta abeslaria imitatu nahi dutenentzat udarako bi irakurketa gomendatuko ditugu.

Ekaineko erakusketa Juan Luis Zufiria zarauztarrak antolatu du, eta honek **BASOAK. Inspirazio iturri agortezinak** izenburua du. Hau da utzi diguten oharra: "Nafarroako Andia eta Aralar baso zoragarriek eta beraien zaintzak nire barrenean pizten duten liluratik sortu da argazki sorta hau. Bizitzaz betetako babeslekuak diren basoak, zuhaitz dotoreekin, errespetuaren garrantzia irakatsi eta ematen diguten ingurunea zaintzera gonbidatzen gaituztenak. Argazki sorta honek erakutsi nahi duen moduan, naturarekin lotzen gaituzten basoak eta inspirazio iturri agortezina direnak".

Bi antzezlan


Hilabete honetan antzerkiaz gozatzeko bi aukera izango ditugu. Lehenik eta behin, **Literarte** jaialdiarekin. Aurten ere Ultzamako liburutegia aukeratua izan da Lite-



rarte jaialdiaz gozatu ahal izanen dutenen artean. Jaialdi honetan lau antzerkigilek Nafarroako irakurketa klubetan irakurritako lau lanei buruz pieza txikietan egin dituzten antzerki-moldaketa libreak antzeztuko dira. *Viaje a la nada* izenburuean, aurten honako lan hauek

aukeratu dira: Nada, Carmen Laforetena, Ventura Ruizek egokitua; Lejos, Rosa Ribasena, Ana Maestrojuanen bertsioarekin; La dama blanca de Champaña, Begoña Pro Uriarterena, Asier Anduezaren ikuspegiarekin; eta La joven y el mar, Catherine Meurisserena, Patxi Larrearen proposamenarekin. Obra ekainaren 6an antzeztuko da, 19:00etan, Gizarte Etxean.

Bigarren antzerki-proposamena, egun hauetan ohikoa den bezala, Axolagabe eskualdeko taldeak egingo du, eta **De aquellos Barros...** antzezlanaren taularatuko dute. Obraren deskribapena Pilar Primo de Riveraren aipu bat da, hemen espainolez mantentzen duguna, Jainkoak eta Francok agintzen duten bezala: "El niño mirará al mundo, la niña mirará al hogar".





"Las mujeres nunca descubren nada; les falta, desde luego, el talento creador, reservado por Dios para inteligencias varoniles; nosotros no podemos hacer más que interpretar, mejor o peor, lo que los hombres nos dan hecho". (Pilar Primo de Rivera, 1942).

Lau emanaldi izanen dira: ekainaren 13an, ostiralarekin, 18:30ean eta 20:30ean; eta ekainaren 14an, larunbaterekin, 17:30ean eta 19:30ean. Sarreraren prezioa 7 eurokoa da eta ekainaren 4tik eta 16:30etik aurrera salgai izanen dira Gizarte Etxeko tabernan.

Festa bat uda baino lehen

Eta ikasturteari amaiera emateko, **FOLKKIS** taldearen kontzertu-festa izanen dugu. FOLKKIS taldea Alberto Blazkezek (eskusoinua eta ahotsa), Eneko Páezek (biolina eta koruak) eta Unai Otegik (txilibitua, zeharkako txirula, xirularrua eta koruak) osatzen dute. Hirukoteak musika zelta egiten duten Celtas Cortos, Sorotan Bele, Mago de Oz, Kepa Junkera edo The Pogues talde ezagunen bertsioak eskainiko dizkigu. Kontzertua, eguraldiak laguntzen badu, Gizarte Etxeko tabernaren terraza berrian izango da.



**Liburutegiko
udako ordutegia:**
ekainaren 25etik irailaren 15era,
goizeko 10:30tik 13:30ra



Igerilekuan irakurtzeko bi liburu

Eta udan itzalpean gustura irakurtzeko bi libururen gomendioekin amaituko dugu; alde batetik, poesia itxura duen eleberri bat; eta, bestetik, umeendako liburu ilustratu eta rockero bat.

Amorante frantsesa, Miren agur Meaberen azken obra da eta hau da aurkitu ahal duguna: "Bioletak hazten zaizkit ezpainen bueltan. Udaberriko / euriak bustita. / Beren urdinak gogorarazten dit / zein ederrak / izan daitezkeen

/ bakarrik dauden gauzak". Nola irakurri Diane Wakoski izeneko poeta baten hitzak hilda agertu den ikasle baten pusken artean? Egunero etxerakoan bizkar gainera igotzen zaizkion itzalez inguratuta bizi da, basoan, kontakizun honetako protagonista, Agurtzane. 60 urte beteak, atezaina da ikastetxe batean eta bi egiteko nagusi ditu: osasun mental arazoak dituen ahizpaz arduratu eta berriz loratzeko sentitzen duen irrika ase. Irati Beraza ikaslearen gorpua Artxandan agertu izanak, ordea, detektibe amateur bilakatu du. Lagunak, txakur adoptatu bat, urtegia, iraganeko absentiak eta maitale berri bat gurutzatuko dira bere bizimoduan. Ezustekoz betetako bakardadea, basoko argi eta soinuekin nahastean. Poema bidez idatzitako nobela da Miren Agur Meaberen lan hau, pertsonaia arrunt baten epopeia xumea, thriller ukituekin.

Anomaliak, Perlata rock taldearen musikariek idatzi duten txikientzako liburu ilustratua eta "kañeroa" da. Perlatakoek diotenez: Gure musika eszena, underground, eraldatzailea, inklusiboa, feminista, antirrazista, askatzailea, alternatiboa eta antisistema da. Eta ideia horiek guztiak ipuin honetara eramaten dituzte, zeinak argudio hau duen: Basoa musika egiten duten animaliaz beteta dago. Kontua ez da hainbeste espazioak konkistatzea edo ozen oihu egitea, baizik eta lekuak bizigarri egitea eta hauetan gozatzea. Basoaren oihartzuna ederra izango da animalia guztien ahotsa entzuten denean. Hau guztia gutxi izango baltiz, liburuaren ilustrazioak, Anna de abajok egindakoak, ederrak dira benetan!

 **Patxi Irurzun**



2025eko apirilean gure alderdian izan ziren jaiotza, ezkontza eta heriotzak:

Jaiotzak:

BASABURUA Beruete

Manex Iribarren Mitxaus, Andoni eta Kristinaren semea, **Malkorpe etxean** jaio zen apirilaren 24an.



▲ Manex, ongi etorri!

IMOTZ Etxaleku

Xune Iriarte Beloki, Mikel eta Goiuriaren alaba, **Hurrondo etxean** jaio zen 2025eko apirilaren 5ean.



▲ Xune, ongi etorri!!!

Heriotzak:

ULTZAMA Ilarregi

Juan Fermin (Mintxo) Ibero Baraibar, Zigandako semea, ttikitatik Ilarregiko **Erramonean** bizi izan zena, apirilaren 8an hil zen 71 urtetan.



▲ Mintxo Ibero

Aitzineko hilabeteen Alaia Herrera Iberoren jaiotzaren berri eman genuen, baina fotografia falta. Orain eskuratu dugunean, zer gutxiago, guraso zoriontsuen fotografia ateratzea baino!

Muskizko ihoteak izanik, ongi etorri beroa egin zioten herritarrek.



▲ Muskizko Alaia

Maddi Irigoien Pino, Maite eta Dumaren alaba, **Eskoletxean** jaio zen 2025eko apirilaren 21ean.



▲ Maddi, Etxalekuko gazteena

“ Beti izanen zaitugu gogoan ”

“ Aupa bat gure gurasoei! ”

MANTENTZE · LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

722 766 835

LIZASO · karikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



Esan Erran irratiko *Egun Ero* irratsaioak oporrak hartuko ditu ekainaren 18an



Baina, lasai!
Ikasturteko
kolaborazioak,
elkarrizketak eta
irratsaioak entzungai
dituzue hemen:



Eta udan ere, AMEZTI.EUS
atari digitalean izanen
dituzue eskualdeko albisteak
eta agenda eguneratua.

Ongi pasa uda!!

 *pulunpe*

 amezti


Esan Erran Irratia
107.9 FM